

Sozialdemokraziaren eraberritzearen bidez

Amaia Inza Bartolomé
EHUko politologoa

Azkeneko hamarkadetan sozialdemokrazian izandako eraldaketan ezinbestekoa da *Hirugarren Bideek* suposatu zuten astindua kontuan hartzea. Ikuspuntu ideologiko guztiek globalizazioarekiko aldaketak egin behar izan dituzte eta sozialdemokraziak bere Estatu idealaren egitura egindako doitzeak diskurtso neoliberalaren hegemoniaren emaitza dira. Horren ezaugarriak behinena ongizateak lehiakortasun ekonomikoaren aurrean lehentasuna galtzea da, sozialdemokraziaren tresna erabakigarriak martxan jartzea gero eta zailago bilakatuz. *Hirugarren Bideen* eta beste ikuspuntu progresisten planteamenduak erantzun teorizatuak dira egoera honen aurrean.

GAKO-HITZAK: Sozialdemokrazia · *Hirugarren Bideak* · Neoliberalismoa.

Among the changes the socialdemocracy have undergone last decades, it must be taken into account the shake that *Third Ways* implied. Every political tradition have had to make changes around globalization and the adjustments the socialdemocracy had done in its ideal state's structure has been due to neoliberal discourse's hegemony. Its main characteristic is that welfare loses priority in favour of economic competition, so traditional socialdemocratic decisive tools can not work. The statements of *Third Ways* and other progressive theories, are a theoretical answers to this situation.

KEY WORDS: Socialdemocracy · *Third Ways* · Neoliberalism.

Jasotze-data: 2009-02-02. *Onartze-data:* 2009-02-05.

1. Sozialdemokraziaren *Hirugarren Bidea(k)*

Duela bi hamarkada, alderdi guztiek zentrorako bidea hasi zuten, autore batzuen ustez hautesleriaren gehiengo bereganatzeko asmoz. Lan honetan defendatu nahi denez, sozialdemokraziak nahitaez jarraitu behar izan duen bidea da, Estatuak globalizazioaren indarraren menpe jasan dituen moldaketak halabeharrez onartzearen ondorio. Sozialdemokraziaren hirugarren bide edo berritze-alternatiba bat, batez ere, Giddens-en *The Third way* liburua argitaratu zenean hasi zen aintzakotzat hartzen, nahiz eta 1992. urtean AEBn Clinton-en garaipenak eta 1997an Blair-enak tankera bereko ideiak martxan jarri. Honezkerok, metafora hau sozialdemokraziaren berrikuntzan ardatz bilakatu da, bai alde zein kontra jartzeko bada ere.

Oro har, *Hirugarren Bidea* ideia eta politika multzo bati deritzo, non sozialdemokraziaren balioak berriro egin behar direla onartzen den, zaharrek eraginkorrak izateari utzi baitiote (Gray, 1999: 8). Dena dela, ez dago *Hirugarren Bide* bakar bat, herri bakoitzaren zertzelada sozial, politiko eta ekonomikoen arabera bide anitz baizik. Merkel-ek (2001) *Hirugarren Biderako* zenbait ibilbide daudela diosku, bakoitza ekintza eta programa bereizgarriekin: merkatuaren bidea (neoliberalismoa), bide estatalista tradizionala (Frantziako alderdi sozialista), laguntzaren erreformaren bidea (Suedia), merkatu gehiago bilatzen dituen (Holandako *polder* eredua) eta SPD alemaniarraren bidea¹.

Hirugarren Bidea ardatz bihurtu bada ere, ezkerreko ideiei eutsi nahi dieten erresistentziak eratu dira. Batzuetan, globalizazioaren politikak mantendu nahi dituzten alderdien lidergoa, tradizio ideologikoa mantenduko duen azpi lidergo batez sostengatuta dago, ekar ditzakeen tentsioekin². Nazioarteko mailan Felipe González-en gidaritzapean eta *Internazional Sozialistaren* barnean, 1996. urtean martxan jarritako *Global Progress* izeneko lantaldea ezkerreko alternatiba izango litzateke, zeinak egitaraua sakontzen jarraitu duen ondoren antolatutako kongresuetan. Bestalde, *Progressive Governance* izeneko lantaldeak *Hirugarren Bidearen* haritik ideiak sakontzen jarraitu du, gobernuburu sozialdemokratek epeka egiten dituzten mundu mailako bileren bitartez, arrisku berriei aurre egiteko tradizio sozialdemokrata berritzeko asmoz.

2. *Hirugarren Bideen* ideia nagusiak

Kontzeptuaren alde dinamikoari eutsiz, Giddens-en teorizazioaz gain, beste autore ugariaren ikuspuntuak kontuan hartu behar dira honen mamia ezagutu nahi badugu.

Ezker eta eskuinetik harago doan transzendentzia baino gehiago. *Hirugarren Bidea* tradizio ezberdinen elementuak harremanetan jartzen dituen konbinazio bat dela esan daiteke, *middle way politics* izeneko tradizioaren ildotik (Driver eta Martell,

1. Alderdi ugari *Hirugarren Bide* horri jarraitu izanak, kontsentsu-idea ekartzen du gogora. Driver eta Martell-ek (2000: 156) planteatzen dute gerra osteko kontsentsu keynesiarra ordezkatzeko duela.

2. Honen adibide Alemaniako SPDn 1999. urtean gertatutakoa da, non Ogasun Ministroa zen Oskar Lafontaine sozialdemokratak bere postua utzi zuen alderdiaren ikuspuntu ofiziala ezkerreko zeuden bere berrikuntzen kontra azaldu zelako (Lafontaine, 2000).

2000: 51). Aldaketen arrazoi nagusia, globalizazioak inposatutako egitura ekonomiko eta sozialei doitzeko beharra izango litzateke; ondorioz, ez da egitura artifizial bat, sistemaren behar objektiboek erantzuna ematen baitie (Anderson, 2001: 8).

Hirugarren Bideen filosofia politikoaren osagarri funtsezkoenetariko bat ongizate-sistemak berritzeko beharra da, eskuinak Estatuaren muga eta kontraesaneak buruz egindako kritikak hein handi batean bereak eginez. Ezberdintasun eta arrisku berrien aurrean tamainako erantzunak behar dira, ezkerak orain arte eskaini zitzaizkeenek ez dute balio. Arrazoi horrengatik gobernu aktibo bat eta arlo publikoaren eraldaketa eskatzen dira, azkeneko horren mugak eta Estatuarenak berdinak ez direla azpimarratuz (Giddens, 1999, 2001a).

Berebiziko garrantzia ematen dio Giddens-ek gizarte zibilari. Bere iritzian, akats handia da Estatu edo merkatuari lehentasuna ematea, egokiena hiru ordenen artean oreka bat egotea delako. Gizarte zibil aproposik gabe, merkatuak ezin dira loratu, ezta demokrazia mantendu ere (Giddens, 2001a: 177). Estatutik gizarte zibilera egiten den erantzukizunen uztea *stakeholding* kontzeptuaren bitartez egiten da: gizarte zibilarentzako onuren lorpenean parte hartu dutenek bakarrik jaso ditzakete onurak. Ideia horren oinarrian indibidualismo erantzule bat dago, zeinaren arabera gizabanakoa bere gizartearen aurrerapenean interesa duen inbertitzailea den, hortik onura ateratzen duelako (Habermas, 2001: 8).

Ildo horretan, gobernu eta gizartearen eginkizun politikoa berrasmatzeko beharra ikusten da, hau da, gobernantzaren paperarena, ekonomia berriari eta gaur eguneko arazo politikoei begira. Horretarako dauden arrazoiak: gizartearen boterearen gailurrean kokaturik dagoen ardatz politiko batetik garapena gidatzea gero eta zailagoa da, ondorioz, sistema politikoaren eta gizarte zibileko aktoreen arteko kolaborazio era berri bat beharrezkoa da eta, bestalde, gizarte modernoetan gizabanakoak dituen eskubide eta betebeharrak haztatzea eskatzen da. Horrela, Estatuak dituen alferrikako eginkizunak libratzen da, eta gizarteak borondatez eta era ezberdinetan egingo ditu (Meyer, 1998).

Ongizate Estatuak *ongizate-gizarte* bilakatu behar da, non Estatuak eta gizarte zibilak batera lan egin beharko duten, laguntzeko eta bakoitzaren ekintzak kontrolatzeko (Giddens, 1999: 96). Gobernu aktibo bat sortzearen ideien alde eta laguntza sozial pasiboa ematearen kontra daude azkeneko horrengatik, gizabanakoek ekonomia eta gizartearen funtzionamendu egokiari laguntzen ez diotelako. Estatuak, herritar guztiei onurak ekarriko dizkien aukerak sortu beharko ditu eta beraien erantzukizuna izango da probetxua ateratzea ala ez (Held, 2001: 54). Horrela, gobernuak Estuari laguntza eskatzen ez dioten herritar aktiboak lortu nahi ditu, beraien kabuz irtenbideak bilatzeko gai direnak. Alde batetik, gizabanakoen erantzukizunak areagotzen dira, baina era berean, Estuak azkeneko horiek sendotuko dituzten aukerak sortzea eskatuko zaie (Plant, 1998). Erantzukizunari buruzko ideia hauek Giddens-en gizarte-kontratu berri baten oinarri den «eskubiderik ez erantzukizunik gabe» leloarekin harremanetan egongo lirateke (Giddens, 2001a: 62).

Justizia soziala lanean oinarritutako gizarte batera sartzeko hesien suntsitzearekin lortuko litzateke. Banaketa ezin da programatik desagertu, baina *aukeren*

banaketa bilakatu behar da, ez da *gertaeren ondorengoa* izan behar (Giddens, 1999: 121). Horrela, hezkuntza ez da bizitzarako prestakuntza soila; kapitalaren mugikortasun eta konpetentziaren beharrak betetzeko prestakuntza jasotzeko era bat izan beharko litzateke. Pobreziatik atera eta gizarte-bazterketa ekiditen laguntzen dutenak ez dira ordaineko diru-laguntzak, lana baizik; gizarte-bazterketa, lan-merkatutik bidegabeko baztertzegatik gertatuko da (Held, 2001: 54). Ildo horretan, Plant-ek (1998) *eskaintzaren aldeko herritargoa* sortzen dela dio, non herritargoa ez da estatus bat, lan-merkatuan partaidetzaren bitartez lortzen den maila baizik.

Aldaketa hauen eremua zentro politikora makurtua dago, non ezkerria eta eskuina banatzeko ardatzik garrantzitsuenak, Estatuak, garrantzia galtzen duen. Zentro politiko honen muintetik irtenbide eta politika *erradikalak*³ hartu beharko dira (Giddens, 1999: 57-59).

3. Sozialdemokraziaren eraldatzean zenbait faktore

Politikaren arloaren murriztea Bigarren Gerraren ondoren hasi zen, klase sozialaren eta alderdi politiko konkretu baten arteko harreman finkoa desagertzen zihoan heinean. Klase sozialetan oinarritutako ikuspuntu hau botoak jasotzeko ardatz bezala erabiltzen zen, baina denbora joan ahala, balioen eta herritarren portaera politikoaren autonomizazioa eta hegazkortasuna zela eta, klase sozial/ alderdi politiko zehatz baten arteko harremana urratzen joan zen, ikuspuntu sozio-estruturalak garrantzia galtzen zuen bitartean. Ondorioz, klase sozialen boto-portaerak lausotu egin ziren.

Langile-klasearen konposizio eta egituraren aldaketek eragin zuzena izan dute aldaketa honetan. Epe fordistaren bukaerak langileriaren zatiketa estrukturala eta banaketa kulturala ekarri zituen. 70eko hamarkadatik aurrera, teknologiaren aurrerakadak industriako enplegua murriztu zuen, zerbitzu-sektorea biderkatuz; langile industrialen kopurua txikiagotu egin zen, alderdi sozialdemokraten zutabe garrantzitsuenak zirenak. Langileriaren barne-desberdintasunen areagotzeak ere beraien interesen bateratzea zaildu zuen (Merkel, 1994: 14-15). Horri postindustrialismoaren etorrera batu behar zitzaion, zerbitzuen produkzioari eta klase profesional eta teknikoei lehentasuna ematen ziena; arazo sozialak ekarri zituen, existitzen ziren egituraketa-erekin bukatzeaz gain, gizabanakoen kultura eta portaeretan aldaketak zekartzalako (Bell, 1976)⁴. Horrela, langile-klaseak aktore pribilegiatua izateari utzi zion.

Agertu diren arrisku berriak klase konkretuei so eginez taldekatzea ere ezinezkoa da, sexu, bizileku, lanbide eta abarren araberaok baitira; esan daiteke gizarteak irekiagoak izanik, pertsonak bereziagoak egiten dituztela, beraz, garrantzitsuena beraien bizi-esperientzia izango da eta ez klase-ezaugarriak (Lamo de

3. *Erradikala* izatea sozialdemokraziaren eta neoliberalismoaren puntu ugari alde batera uztea da, gaur eguneko munduan esleitu ezin daitezkeelako (Giddens, 2001b: 70).

4. Esping-Andersen-en (1999: 229) ustez, klaseen bukaeraren tesian puntu nagusia da joera postindustrialak lanaren esperientzia homogeenoa eta kolektiboa desagitea, indibidualismoa eta berezitasuna bultzatuz.

Espinosa, 1996: 35, 37). Ezker-eskuin ardatza ordezkutzen ari dena eremu politiko ideologiko dimentsioaniztasun eta sailkatua da, alderdi politikoak sustraitik aldaraziz. Horrela, ezein alderdik klase-interesak gehiegi erabiliko balitu, hautesle kopuru bati uko egingo lioke halabeharrez. Beraz, talde ezberdinen mokokaldia alderdi politikoen bitartez gertatzen zen garaia bukatu da, *klase gatazkaren manifestazio demokratikoa* antzezten zuten garaia (Lipset, 1987: 191).

Aurreko horri politika postmodernoaren etorrera gehitu behar zaio, klasean oinarritutako gatazka politiko batetik —gizarte industrialaren ezaugarria— kulturari eta bizi-kalitateari garrantzi handiagoa ematen dien epe batera igarotzen garelarik. Ondorioz, alderdiek posizio-arazoak dituzte, klase sozialean oinarritutako botoa murriztu egin delako eta hautesleek balio postmaterialista eta materialisten arabera kokatzeko joera dutelako (Inglehart, 1998). Postmodernizazioaren ondorioz ere, politika ideologikoak identitate-politikek ordezkaturiko dituzte (Águila eta Vallespín, 1998: 451). Oro har, alderdien arrazoibideek gero eta zailago edukiko dute hautesleen interesak biltzea.

Aldaketa hauek alderdien berregituraketa ekarri du nahitaez. *Catch-all* alderdiak (Kirchheimer, 1980) edota alderdi *profesional-elektoralak* (Panebianco, 1990) hautesleria guztiari zuzenduak egongo dira, ahalik eta boto kopuru gehien lortzeko asmoz, beraien programen arteko diferentziak txikiagotuz. Alderdiak gobernuan daudenean muga ekonomiko eta sozialak dituztela kontuan harturik, beraien programa politikoak moldatu behar dituztela ere aintzakotzat hartu behar da (Birnbaum, 2003: 259). Diferentzia ideologikoen txikiagotzearekin jarraituz, *ideologiaren bukaera* eta *historiaren bukaera* teoriek, esaterako, zerikusia badute. Gamble-k eskaintzen digun interpretazioaren arabera, liberalismo ekonomiko eta politikoaren garaipena suposatzen dute; kapitalismoaren alternatibarik ez dago, gobernu demokratikoa eta merkatu-kapitalismoa unibertsalak direlako eta gizateria garapen ideologiko gorenera heldu delako. Beraz, ezkerren eta eskuinaren arteko antzianako diferentziek ez dute baliorik, ezin ditzaketelako Estatu liberal demokratikoaren oinarriak hobetu edota ekonomia kapitalistatik aldendu (Gamble, 2003: 51).

Gainera, alderdiak garaipen elektorala lortzera zuzendurik daudela hartu behar da kontuan. Downs-en arabera, edozein alderdiren helburua hauteskundeak irabaztea da, kargu publikoak lortzeko bidea baita; hori dela eta, ahalik eta boto gehien beharko dute. Ideologiak nahi horien ondorio dira eta boterea lortzeko tresna bezala erabiltzen dituzte (Downs, 1973). Gizartearen gehiengoak errazago barneratzen dituen proposamen politikoak alderdi politikoen helburu izan dira betidanik; herrialde bakoitzak *eremu ideologiko* bat edukiko du, non hauteskundeetan desiragarriak diren proposamenak bilduko diren, beraz, alderdiak horiek betetzeko mugitu daitezke (Ware, 2004: 88).

Ezaugarri hauen pean gertatu da alderdien berregituraketa 90eko hamarkadatik aurrera joko politikoaren pobrezia markatuz; *Hirugarren Bideen* teorizazioen sustrai funtsezkoena Estatuaren kontzepzioaren baitan gertatu diren aldaketak miatuz uler daiteke, sozialdemokraziaren eraldaketa ulertzera eramango gaituztenak.

4. Estatuaren ideiareen garrantzia ideologian

Hautesle eta alderdien kokapena ezker-eskuin ideologikoan, Estatuak ekonomian eduki izan duen paperaren arabera egin oi da (Downs, 1973: 125), eta, funtsean, tradizio ideologikoez beren ikuspuntua horri dagokiola landu dute. Esan bezala, datu hori garrantzitsua da sozialdemokraziak pairatu dituen aldaketen funtsa ulertu nahi bada.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, keynesianismoak eskarian hartzen zuen parte, politika fiskal, zerga eta gastu publikoaren mailan eragina izanik. Horrela, merkatu-ekonomiaren bidegabekeriak zuzendu, pobrezia ezabatu eta ezberdintasun sozialak murrizten saiatzen zen, era berean hazkundea sustatu eta enplegua mantenduz (Heywood, 1997: 95). Justizia sozial eta hazkunde ekonomikoaren bitartez gizartearen berrikuntza beharrezkoa zen garai horretan; gizartea eta Estatuak, bi eremu independente eta autonomoak, estuki erlazionatuta agertzen ziren eta Estatuak gizarte-zuzendaritzaren ardura jaso zuen (Zapatero, 1986: 67). Hein handi batean alderdi politiko guztien programek ikuspuntu hori barneratu zuten errealtate horri aurre egiteko.

Ongizate Estatuak eta ekonomia mistoaren finkapena, sozialisten eta liberal-kontserbatzaileen arteko gatazka ideologikoa bukatutzat hartzen zituen sintesia zen (Macridis eta Hulliung, 1998: 87). Ildo horretan, Seymour Martin Lipset-en *ideologiaren bukaera* zeritzon teoriaren arabera, industria-iraultzaren arazorik funtsezkoenak konponduta zeuden, zeren langileek herritargo industrial eta politikoa lortu baitzuten, kontserbatzaileek Estatuaren laguntza soziala onartu baitzuten eta ezker demokratikoak onartu baitzuten ezen Estatuaren boterearen areagotzeak arazo ekonomikoak konpondu beharrean, askatasunerako arriskuak ekartzen zituela (Lipset, 1987: 359-360). Bestalde, Bell-en aburuz, ideia politikoak 50eko hamarkadan ahitu ziren, eta gatazka ideologikoa politika pragmatiko batek ordezkatu zuen. Zenbait egitasmo politikori buruzko akordio orokor bat zegoen, Estatu sozialaren onespena, botere deszentralizatu baten nahia, ekonomia mistoa eta aniztasun politikoa eskatzen zituena; zentzu horretan ere ideologiaren epea bukatu egin zen (Bell, 1992: 449).

Ikuspegi ekonomiko monetaristak hurrengo maila suposatu zuen. Hori politika sozial berdintzaileen kontra zihoan, gastu publikoa arazo ekonomikoaren kausa nagusitzat jotzen zelako. Aurrekontu orekatua eta estatu-interbentzio txikiagoa, efizientzia ekonomikoarentzat beharrezkoak zirela uste zuten (Maravall, 1995: 182). Monetaristen teoriak keynesianismoan izugarritzko urratua suposatu zuten. 80ko hamarkadan, ekonomialari eta politikoez Estatuak merkatuaren akatsak konpontzeko ahalmenean konfiantza zeharo galdu zuten (Merkel, 1995: 29). Adostasun sozialdemokratikotik epe horretan geldituko zen gauza bakarra Ongizate Estatuarekiko engaiamendua zen, murriztagoa eta ahulagoa hala ere (Girvin, 1988: 4).

Ideien berritze behartu eta orekatsu horren ondorioz, programa sozialistak eta sozialdemokratikak jabego publikotik gehiago aldenitu ziren (Ware, 2004: 73). Eremu publikoaren areagotzeak automatikoki berdintasuna ekartzen zuela ahaztu eta merkatuaren konponbideak onartu zituzten zerbitzu eta ondasunak lortzeko, lehenago Estatuaren esku-sartzea eskatzen zuten aferetan; are gehiago, ez zuten uste baliabide publikoak Estatutik zuzenean hornitu behar ziratekeenik, finean zein

eskari beteko ziren aukeratu beharko zirela baizik (Müller, 1994: 41-45). Horrela, alderdi sozialdemokratek beren politikaren oinarriak alde batera utzi eta ikuspuntu teknokratiko-estatalista keynesiarra bereganatu zuten. Beren filosofia politikoa filosofia teknokratiko bilakatu zen (Merkel, 1995: 30-31).

Estatuak ekonomian duen paperari lagunduz, globalizazioari erantsia datorren ideologia agertzen da, hots, neoliberalismoa: globalizazioaren estrategia hegemonikoa dela esan dezakegu (Jessop, 2000: 110). Gizabanakoari Estatuari baino garrantzi handiagoa ematen zaio eta azkeneko hori zaindariaren ezaugarriak hartzen doa: funtzio minimoak dituen Estatu bat, legearen mantentzea, ordenu publikoa, moneta sendoa eta kontratuen betetzearekin konplitzen dela ziurtatzen duena (Gamble, 2003: 67). Plant-en arabera (2004: 34-35), Estatu neoliberalentzat helburu kolektiboak ez dira Estatuaren helburu, ez delako existitzen parte hartzeko arrazoi moral kolektiborik. Gainera, ez dute beraien Estatu idealaren legitimazio normatiboa espero justizia sozialaren bitartez, oparotasun materialaren bitartez baizik. Ikuspuntu neoliberalarentzat, Estatuak eremu politiko, zibil eta ekonomikoa estekatzen ditu, gizarte zibila itoz. Estatuaren erronka nagusia, hauxe da: kooperazio sozialerako funtsezkoak diren ondare publikoak Estatuaren mugak zabaldu gabe lortzea (Barry, 2004).

Politikarien artean adostasuna dago neoliberalismoaren nortasunari dagokionez. Gehiengoarentzat, berrikuntzen multzo zentzuduna da, interdependentsia eta errealtate globalen aurrean beharrezkotzat jotzen dituztenak (Cerny, 2004). Ikusker horren argitan, diskurtso neoliberalak ez du onartzen egitura sozialen konplexutasuna eta politikak ezingo ditu arazo sozialak konpondu, arazo horiek ez direlako sozialak, pertsonalak baizik. Dinamika soziala ez denez desbiderapenengatik urratzen, arazoak doitze- eta sozializazio-arazoak besterik ez dira (Álvarez-Uría, 1998: 27-28).

5. Aldakuntzaren mugak

Globalizazioaren eraginen eta Ongizate Estatuaren berezko akatsen ondorioz, Estatuak ezingo dituzte betiko tresnak erabili. Bestalde, ekonomia internazionalak inposatzen dituzten arauak direla eta, eremu politikoa txikitu egiten da, egingarriak diren ekintza posibleak gutxiagotuz. Ondorioz, Estatuari paper berri bat esleituko zaio, merkatuak eta gizarte zibilak edukiko dituzten ardura berriak diseinatzen diren bitartean: Estatuaren ekintza arrakastatsua izateko, Estatu eta gizartearen arteko hierarkizazioaren aldaketa gertatu behar da, Estatuak zuen botere koordinatzailea alde batera utziz eta zuzendaritza politiko eta gizartearen arautze autonomoarekin osagarritasuna bilatuz (Vallespín, 2000: 134-137)⁵.

Aldakuntzaren oinarri, esan bezala, globalizazioaren garroek ekonomian sorrarazitako birmoldaketak dira. Hasieratik, ekonomien harremanak zenbait arrisku dakartza, Estatuaren politiken funtsezko elementuen gaineko kontrola galtzen delako. Finantza-merkatuen interdependentsiak dibisa nazionalak elkarrekin lotzen ditu, baita moneta-politika eta aurrekontu-politikak ere (Castells, 1999: 273). Prozesu

5. Estatuaren boterearen ezpaltze edo zatiketa gertatzen dela dio Cerny-k (1999: 14), Estatu eta arlo pribatuaren arteko ardura eta ahalmenen arteko muga biderkatuak nahasiagoak agertzen direlarik.

globalizatzaileak barne-politiken gain inposatzen dira, nazioarteko lehiakortasunaren kontrako edozein motatako politiken aurka azalduz (Frieden eta Rogowski, 1996: 25). Banku zentral independente bat edukitzea, adibidez, gobernuen politika neoliberal aproposaren adierazle izango da (Milner eta Keohane, 1996: 258). Held-en iritzian (2001: 52), neoliberalismoarentzat, merkatuen ikurrek eta bertako indar eta aktoreen erabakiek arau arrazionalak finkatzen dituzte eta gobernuak ezin dira horien kontra joan, ezta saiatu ere. Era berean, gastu sozial banatzaileak garapen ekonomikoa eragozten du eta beronen murriztapena beharrezkoa da garapen hori mantentzeko (Midgley, 2001: 157). Gertaera hauek direla eta, *mundu politikoaren eta ekonomikoaren arteko arraildura* sortzen da, zeinaren bitartez ekonomiak politika zentzuz husten duen, harreman sozial eta kontratu sozialaren oinarriak urratuz (Vallespín, 2000: 144).

Gobernuek politika ekonomiko, fiskal eta sozial antzekoak jarriko dituzte mar txan, eta Ongizate Estatuaren nahitaetzko murriztea suertatuko da. Herriak ezingo dira ongizate-sistematik gabe egon, baina horiek ezingo dute lehengo balio unibertsal eta berdintzaileetan oinarriturik jarraitu. Horrela, Estatuaren legitimaziorako bide garrantzitsu eta ziurrena agortzen da. Haatik, ikuspuntu positiboek diotenez, Estatuaren boterearen aldaketa bat gertatu da, Estatu ekintzaileago bat lortuz, gobernu- eta mandatu-estrategia berriekin (Held, 2000: 5). Estatuak dituzten mugei aurre egin beharko diete, adostasun maila nahikoa lortu beharko duen ongizate-sare oinarritzkoa sortuz, era berean maila mesoekonomiko eta mikroekonomikoan berrikuntza estrukturala bultzatuz lehiakortasun internazionala hobetzeko (Cerny, 1997: 262).

Hala ere, biztanleriarentzat Estatuak badu zereginik haren ongizatea eta segurtasuna bermatua ikusteko: oinarritzko eskubideak mantenduak izateko Estatuaren papera funtsezkotzat jotzen du iritzi publikoak eta bizitza, askatasuna eta jabegoa mantentzea eskatuko dio (Döring, 1994: 28). Neoliberalismoari aurre egiten dioten beste hiru muga ere badaude Jessop-en ustez. Alde batetik, Estatuak, ekonomiaren kanpotiko lan-indarraren iturri bezala funtzionatzea espero da. Nahiz eta Estatuaren, merkatuaren eta gizarte zibilaren mugak eta erantzukizunak aldatu, Estatuak gidari bezala paper garrantzitsua edukitzen jarraituko du. Gainera, Estatuaren doitzearantz muga instituzional garrantzitsuak daude, politiken oinordekotza, programen inertzia eta Estatuaren arkitektura orokorrarengatik. Azkenik, ordezkartza-politiketan sustraiturik dauden Estatuaren barne-eraketa eta interbentzio-politiken ondorioz sortutako mugak ere badaude (Jessop, 2002: 150-151).

Gobernantza kontzeptuaren berregituraketa bat ere badago, gaur eguneko gizarte merkatuaren gaineko interferentzia publikorik gabe gidatu ezin daitekeelako, konpetentziaren arautze, irizpide makroekonomikoen doitze eta justizia banatzaileari begira dagoen politikarik gabe. Bestalde, gizarteek ere ezin dituzte ekintza pribatuen joerak alde batera utzi, ekonomia eta gizarte bera dinamizatzeke duten ahalmena alperrik galduz. Estatu, merkatu eta *hirugarren sektorearen* arteko elkarrekintza, gobernantzaren oinarri dira eta gobernuaren eginkizun tradizionala hausten dute, *zuzentza hierarkikoaren krisia* ekarriz (Vallespín, 2003: 408-409). Hirukote horretako elementuen artean, merkatuaren logika da Estatuari funtzioen lagapena eskatzen diona. Joera horretan funtsezko garrantzia du eskubide

sozialen merkantilizazioak, zeinaren bitartez gero eta bizitzaren arlo gehiago egongo diren merkatuaren legeen pean.

Dinamika hori, Ongizate Estatuari buruzko hainbat teorizaziotan ikus dezakegu. Cerny-ren ustez, sortu den Estatua *Lehiaketa Estatua* da, herri bakoitzaren ekintza ekonomikoak internazional eta transnazonalki lehiakorragoak izateko lan egingo duena. Xede horri begira, gobernuen gastua gutxitu eta ekintza ekonomikoen desarautzea bilatuko dute, batez ere finantza-merkatuen kasuan. Ongizaterako erabiltzen den gastua, sistema ekonomikoaren orekatzaile bezala edo hazkunde ekonomikorako aproposa bada onartzen da soilik. Estatuaren tresnak garrantzi gutxikoak dira ondasun komunak lortzeko, legitimazio-krisien aurrean ahulagoak bihurtuz. Era berean, Estatuak beren autonomia eta ahalmen politikoa gutxitzen dela ikusiko dute; hierarkia merkantilizatzaile bezala lan egin beharko dute, gero eta aktibitate gehiago merkatuaren pentzudan jarritz. Horrela, sare ekonomiko konplexu batean Estatua enpresari, bitartekari, finantzari eta abokatua da, Estatuaren eta merkatuaren arteko mugak desagertzen diren bitartean (Cerny, 1997).

Bestalde, Jessop-en aburuz, *Ongizate Estatu nazional keynesiarra* metatze postfordistarekin bat datorren *Workfare Estatu Postnazional Schumpeteriarra* ordezkaturiko du. Horrek, 1980. urtetik aurrera berregituraketa eta aldaketa estratetikoko bat jasan du hiru tendentzien ondorioz: desnazionalizazioa, desestatizazioa eta internazionalizazioa. Bertan funtsezkoa da globalizazioari buruzko metanarritiba geoekonomikoa, maila ezberdinetan lehiakortasun estrukturala eskatzen duena. Aberastasunaren lorpena izango da lehentasuna duena, ongizate eta banaketa sozialerako baldintza delako. Politika sozialak, politika ekonomikoen mende egongo dira eta negozioentzat onuragarriak direnak bilatuko dituzte bakarrik, gizabanakoen beharrak alde batera utziz. Estatu subiranoen organizazio hierarkiko politiko *top-down*etik harreman interorganizazionalen auto-organizazioa bultzatzera pasatzen da. Estatuaren lana ez da hain hierarkikoa eta zentralista izango (Jessop, 2002).

Oro har, arlo politiko guztiak eskuinerantz egin du eta gaur eguneko tradizio ideologikoen arteko diferentzia, kontsentsu sozialdemokrataren pean egon zena baino estuagoa da, ondorioz, logikoa dirudi tradizio ezberdinek antzeko politikak defenditzea (Müller, 1994: 32). Ingurune horretan, ikuspuntu liberal-kontserbatzaileari errealitatea definitzeko aukera eman zaiola esan dezakegu. Estatuaren bilakaerak beraien ikuspuntua arrazional gisa agertzea erraztu die. Eskuineko ikuspuntua egiaren jagole da eta horren aurrean ezkerreko ideiek lan eskergea dute *errealitate* horri aurre egiteko.

6. Ondorio bezala

Aldakuntzaren muinean Ongizate Estatuaren aldaketa dago. Ezker-eskuin ardatzak egokitu behar izan du azaldutako puntu hauen arabera eta horregatik ekonomikoki hain liberalak ez diren tradizio ideologiko desberdinei zaila izan zaie alternatiba sustraituak definitzea, ongizateari buruzko ideia neoliberelek esparru murrizta uzten zutelako.

Hirugarren Bideen eta ondoren sortu diren ikuspuntu progresisten garapenen nortasuna ulertzeko, Estatuak jasandako nahitaezko inertziak batzen dituztela hartu behar da kontutan. Ez da ezker eta eskuinaz harago doan zerbait, baldintza batzuen indarraren ondorioz erantzun *logiko* bat eman nahi duten proiektuak baizik, era berean baldintza horien funtsa sendotzen dutelarik. Hau da, aurrebaldintza batzuen araberrako erantzun teorizatuak dira, Estatuaren inguruan sortu diren ideia hegemonikoak hartu eta muga horien barruan jokatzeko dutenak.

Edungo krisi ekonomikoa dela medio, neoliberalismoak ezarritako egia mugiezi-
nak bertan behera uzteko aukera paregabekoa du sozialdemokraziak, neoliberalismoaren hegemonia apurtuz. Baina horma sendoak bota beharko ditu lehenengo. Batez ere, sozialdemokraziak hainbat esparrutako merkantilizazioan zein heinean lagundu izan duen hausnartu behar du eta joera horri buelta nola eman behar dion.

Bibliografia

- Águila, R. del eta Vallespín, F. (1998): "Epílogo: Ideas políticas y futuro", in J. A. Mellón (ed.), *Ideologías y movimientos políticos contemporáneos*, Tecnos, Madrid, 443-459.
- Álvarez-Uría, F. (1998): "Retórica neoliberal. La gran ofensiva de los científicos sociales contra las políticas sociales en EEUU", *Claves de Razón Práctica*, **80**, 20-28.
- Anderson, P. (2001): "La segunda fórmula a prueba", *New Left Review*, **8**, 5-23.
- Barry, N. (2004): "The rationale of the minimal state", in A. Gamble eta T. Wrighten (ed.), *Restating the state?*, Blackwell, Oxford, 24-37.
- Beck, U. (2008): "De la fe en el mercado a la fe en el Estado", *El País*, 2008ko apirilaren 15a, 39. or.
- Bell, D. (1976): *El advenimiento de la sociedad post-industrial*, Alianza Universidad, Madrid.
- , (1992): *El fin de las ideologías. Sobre el agotamiento de las ideas políticas en los años cincuenta*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madrid.
- Birnbaum, N. (2003): *Después del progreso. Reformismo social estadounidense y socialismo europeo en el siglo XX*, Tusquets, Barcelona.
- Castells, M. (1999): *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. II. El poder de la identidad*, Alianza, Madrid.
- Cerny, P. G. (1997): "Paradoxes of the competition state: the dynamics of political globalization", *Government and Opposition*, **32**, 2, 251-274.
- , (1999): "Globalization and the erosion of democracy", *European Journal of Political Research*, **36**, 1, 1-26.
- , (2004): "Mapping varieties of neoliberalism", *IPEG Papers in Global Political Economy*, **12**,
<<http://www.bisa.ac.uk/groups/ipeg/papers/12%20Philip%20Cerny.pdf>>
[Kontsulta: 2006-06-05].
- Dehesa, G. de la (2000): *Comprender la globalización*, Alianza, Madrid.
- Döring, H. (1994): "Public perceptions of the proper role of the state", *West European Politics*, **17**, 3, 12-31.
- Downs, A. (1973): *Teoría económica de la democracia*, Aguilar, Madrid.
- Driver, S.; Martell, L. (2000): "Left, right and the third way", *Policy & Politics*, **28**, 2, 147-161.
- Esping-Andersen, G. (1999): "¿La política sin clases?". *Zona Abierta*, **86/87**, 219-257.

- Frieden, J. A. eta Rogowski, R. (1996): "The impact of the international economy on national policies: an analytical overview", in R. O. Keohane eta H. V. Milne (ed.), *Internationalization and domestic politics*, Cambridge University Press, Cambridge, 25-47.
- Gamble, A. (2003): *Política y destino*, Siglo XXI, Madrid.
- Giddens, A. (1999): *La tercera vía. La renovación de la socialdemocracia*, Taurus, Madrid.
- , (2001a): *La tercera vía y sus críticos*, Taurus Pensamiento, Madrid.
- , (2001b): "Tercera vía y justicia social", *La Política*, **5**, 69-84.
- Girvin, B. (1988): "Introduction: varieties of conservatism", in B. Girvin (ed.), *The transformation of contemporary conservatism*, Sage, Londres, 1- 12.
- Gray, J. (1999): "La tercera vía tendrá que ser dictada en cada país", *El País*, 1999ko azaroaren 29a, 8. or.
- Habermas, J. (2001): "El valle de lágrimas de la globalización", *Claves de Razón Práctica*, **109**, 4-10.
- Held, D. (2000): "¿Hay que regular la globalización? La reinención de la política", *Claves de Razón Práctica*, **99**, 4-11.
- , (2001): "El fin de la política y la tercera vía", *La Política*, **5**, 45-59.
- Heywood, A. (1997): *Politics*, Macmillan, Londres.
- Inglehart, R. (1998): *Modernización y posmodernización. El cambio cultural, económico y político en 43 sociedades*, CIS, Madrid.
- Jessop, B. (2000): "Reflexiones sobre la (i)lógica de la globalización", *Zona Abierta*, **92/93**, 95-125.
- , (2002): *The future of the capitalist state*, Polity, Cambridge.
- Kirchheimer, O. (1980): "El camino hacia el partido de todo el mundo", in K. Lenk eta F. Neumann (ed.), *Teoría y sociología críticas de los partidos políticos*, Alianza, Bartzelona, 328-347.
- Lafontaine, O. (2000): *El corazón late a la izquierda*, Paidós Estado y Sociedad, Bartzelona.
- Lamo de Espinosa, E. (1996): "Partidos y sociedad", *Claves de Razón Práctica*, **63**, 34-43.
- Lipset, S. M. (1987): *El hombre político. Las bases sociales de la política*, Tecnos, Madrid.
- Macridis, R. C. eta Hulliung, M. (1998): *Las ideologías políticas contemporáneas*, Alianza, Madrid.
- Maravall, J. M. (1995): *Los resultados de la democracia*, Alianza, Madrid.
- Merkel, W. (1994) (ed.): *Entre la modernidad y el postmaterialismo. La socialdemocracia europea a finales del siglo XX*, Alianza Universidad, Madrid.
- , (1995): *¿Final de la socialdemocracia? Recursos de poder y política de gobierno de los partidos socialdemócratas en Europa Occidental*, Alfons El Magnànim, Valentzia.
- , (2001): "La tercera vía de la socialdemocracia europea a finales del siglo XX", *La Política*, **5**, 7-44.
- Meyer, T. (1998): "The third way-some crossroads", *Friedrich Ebert Foundation, Working Document*, **3**, <<http://www.fes.org.za/english/debate/wp-03.pdf>> [Kontsulta: 2001-03-18].
- Midgley, J. (2001): "Growth, redistribution, and welfare: toward social investment", in A. Giddens (ed.), *The global third way debate*, Polity Press, Cambridge, 157- 171.
- Milner, H. V. eta Keohane, R. O. (1996): "Internationalization and domestic politics: a conclusion", in R. O. Keohane eta H. V. Milner-en (ed.), *Internationalization and domestic politics*, Cambridge University Press, Cambridge, 243-258.
- Müller, W. (1994): "Political traditions and the role of the state", *West European Politics*, **17**, 3, 32-51
- Panebianco, A. (1990): *Modelos de partido*, Alianza Universidad, Madrid.

- Plant, R. (1998): "The third way", *Working Papers 5/98 Friedrich Ebert Foundation/European Policy Forum Seminar on "The Third Way"*, <<http://www.feslondon.dial.pipex.com/pubs/plant.htm>> [Kontsulta: 2001-09-07].
- , (2004): "Neo-liberalism and the theory of the state: from Wohlfahrtsstaat to Rechtsstaat", in A. Gamble eta T. Wrighten (ed.), *Restating the state?*, Blackwell, Oxford, 24-37.
- Stiglitz, J.E. (2009): "El retorno triunfante de John Maynard Keynes", *El País* (Negocios), 2009ko urlarrilaren 11, 14. or.
- Vallespín, F. (2000): *El futuro de la política*, Taurus Pensamiento, Madril.
- , (2003): "Globalización y política: la crisis del estado", in A. Arteta; E. García Guitián eta R. Máiz (ed.), *Teoría política: poder, moral, democracia*, Alianza, Madril, 402-423.
- , (2008): "¡Bienvenidos a la neomodernidad!", *El País*, 2008ko arazoaren 23a, 39. or.
- Vidal-Beneyto, José (2008): "La perversión de los ideales", *El País*, 2008ko apirilaren 26a, 9. or.
- Ware, A. (2004): *Partidos políticos y sistemas de partidos*, Istmo, Madril.
- Zapatero, V. (1986): "El futuro del estado social", in. A. Guerra (e.a.), *El futuro del socialismo*, Sistema, Madril, 65-90.

